# XEDAPEN OROKORRAK

## BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4538

*AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak.*

Seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuak 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuaren aginduaren bidez onartuko dira dekretu horretan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eredu normalizatuak, bai eta laguntza horiek eskuratzeko baldintzen egiaztagiriak ere.

Aipatu dekretuak 15.4 artikuluan dio, halaber, eskabideak elektronikoki aurkez daitezkeela, edo aurrez aurre, Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean herritarrentzako arreta-zerbitzuak dituen bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, inprimaki normalizatuaren bidez eta haren atal guztiak behar bezala beteta.

Bestalde, aipatutako 15. artikuluaren 5. apartatuak ezartzen du laguntzaren informazio-fitxa eskuragarri dagoela helbide honetan: https://www.euskadi.eus/servicios/0045802, non eskuragarri egongo baitira eskabide-inprimakiak eta horiek betetzeko jarraibideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluak xedatzen du –administrazio prozedura hasteko eskabideei buruzkoa da artikulua– Administrazioak prozedura jakin batean espresuki ezartzen baditu berariazko eredu batzuk eskabideak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituztela eredu horiek, eta gehitzen du eskatzaileek nahi adina datu erants ditzaketela eskabide-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko, zeinak organo hartzaileak onartu eta kontuan izan beharko baititu.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak onartzea.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Agindu honetan aurreikusitako laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak aplikatuko zaizkie Agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera aurkezten diren laguntza-eskabideei.

3. artikulua.– Laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

1.– Laguntzak eskuratzeko baldintzak dokumentu hauen bidez egiaztatu ahal izango dira:

a) Familia-unitatea osatzen duten gurasoen identitatea: Europar Batasuneko estatu bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duen estatu bateko

nazionalitatea dutenen kasuan, titularraren nazionalitatea jasotzen duen nortasun-agiri ofizial bat edo pasaportea aurkeztu beharko da, eta, gainerako herrialdeetako nazionalitatea dutenen kasuan, Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) edo pasaportea, edo, hala dagokionean, duten bizileku-baimena.

b) Filiazio biologikoaren kasuan, filiazio-lotura jaiotza-ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da, edo, halakorik izanez gero, Familia Liburuaren bidez.

Adopzio-kasuetan, Erregistro Zibilaren ziurtagiria aurkeztu behar da, adopzioa eratzeko ebazpen judizialaren inskripzioari buruzkoa, edo, halakorik izanez gero, Familia Liburua.

Adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazio bat bada, hura eratzen duen administrazio-ebazpena aurkeztu beharko da.

Tutoretza-egoeretan, tutoretza eratzeko ebazpen judiziala aurkeztu behar da.

c) Erroldatzea: eskatzailearen errolda-agiriaren bidez, non jasoko baita bizilekuan bizi diren pertsona guztien zerrenda, eta adieraziko baita eskatzailea noiztik dagoen udalerrian erroldatuta.

Erroldatua egotea eskatzen den aldian zehar, eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan bizi izan bada, eskabidean zehaztu beharko du hori, eta baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu.

Ez da onartuko eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagoko antzinatasuna duen errolda-ziurtagiririk.

d) Seme-alabaren zaintza eta jagoletza epailearen ebazpen baten bidez ezarri bada, eskatzaileak dokumentu hori aurkeztu beharko du.

Ebazpen judizialaren bidez zaintza eta jagoletza partekatua ezarrita duten kasuetan, bai laguntza sortzen duten alaba-semeentzat, bai laguntza eragin ez baina familia-unitateko seme-alaben kopurua zehazteko zenbatzen direnentzat, berariazko akordio bat aurkeztu beharko dute gurasoek, zehazteko bietatik nork eskatuko duen laguntza.

e) Seme-alabak desgaitasunen bat edo mendetasun-egoeraren bat aitortuta badu, egiaztatu egin beharko da.

f) Laguntza kobratu nahi den banku-kontua Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, BBVA, Banco Santander, Sabadell, Caja Rural de Navarra edo ABANCAkoa ez bada, banku-agiri bat aurkeztu beharko da, eta bertan erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, banku-kontuaren titularraren izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia agertu beharko dira, edo, pasaportearekin identifikatu bada, pasaportearen zenbakia.

Eskabide-orrian adierazitako banku-kontuaren titularra laguntzaren eskatzailea izan beharko da nahitaez.

g) Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, hauek egiaztatuko ditu eskatzaileak:

I.– Laguntza hauek kudeatzen dituen zuzendaritzari berehala jakinaraziko dio eskabidean adierazitako datuetan egondako edozein aldaketa eta dirulaguntzaren xedea edo laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak nabarmen aldatu ditzakeen edozein gertaera.

II.– Eskabide honetan nahiz aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak dira, eta halaxe dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu dezake.

III.– Laguntza hauen onuradun izateko baldintzak betetzen ditu, eta laguntza aprobetxatu bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.

IV.– Beste guraso bat badago edo bikotekide edo ezkontiderik edukiz gero, pertsona hori jakinaren gainean jarriko da, eta baimena emango du eskabide honetan adierazitako datuak kontsultatzeko.

V.– Bere helbidean bizi diren adinez nagusiak jakinaren gainean jarriko dira, eta eskabide honetan adierazitako errolda-datuak kontsultatzeko baimena emango dute.

VI.– Ez diote zehapenik jarri, zigor- nahiz administrazio-arloan, eta, halaber, ez dago laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea legez eragozten dion beste ezein egoeratan.

VII.– Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako laguntza edo dirulaguntzekin lotutako itzultze- edo zehapen-prozedura batean.

Horrez gain, hirugarren seme-alaba eta hurrengoak hazi eta mantentzeko laguntza gehigarrien kasuan, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bidez adieraziko du familia-etxean bizi diren 18 urtetik gorako eta 25 urtetik beherako seme-alabek ez dutela lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta handiagorik.

2.– Gainera, III. kapituluan aurreikusitako laguntzek laguntzaren zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren arabera zehaztea aurreikusten dute. Familia-unitatearen diru-sarrera fiskalak honako informazio honen bidez egiaztatuko dira:

a) Dagokion administrazioak egindako likidazioa, familia-unitatea osatzen duten gurasoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenari dagokiona (baterako aitorpena edo bakoitzaren aitorpen indibiduala), laguntza eskatu baino bi urte lehenagoko zergaldikoa.

b) Familia-unitatea osatzen duten gurasoek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egin ez badute, dagokion administrazioak emandako ziurtagiria, laguntza eskatu baino bi urte lehenagoko zergaldiari dagozkion errenta guztiak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari egotz dakizkiokeen errenta eta errendimendu guztiak adierazten dituena.

Familia-errenta estandarizatua zehazteko, informazio hau hartu behar da kontuan:

1) Laguntzaren eskatzailea genero-indarkeriaren biktima bada, Familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak 4.3 artikuluan (edo hura ordezkatzen duen arauak) ezarritako bitartekoren baten bidez egiaztatu beharko da genero-indarkeriaren egoera.

2) Familia-unitatea osatzen duen norbaitek desgaitasun edo mendetasun aitortu bat izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiria.

3) Familia-unitatea guraso bakarrekoa bada, eskatzaileak egiaztatuko du laguntza eragin duen seme-alaba ekonomikoki bere mende dagoela bakarrik.

Hori honela egiazta daiteke, besteak beste:

– Adingabea berak bakarrik aitortua bada, hori egiaztatzen duen dokumentu administratiboaren bidez.

– Bi gurasoek aitortu badute seme-alaba, beste gurasoak ez duela mantenu-pentsioa ordaintzen egiaztatzen duen dokumentu judizial edo administratiboaren bidez.

3.– Eskatzaileak eskubidea du ez aurkezteko jadanik administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste administrazio orok egindakoak. Laguntzak kudeatzen dituen organoak artikulu honetako 1. apartatuko a), b), c) eta e) letretan eta 2. apartatuan –datu fiskalak eta desgaitasunari edo mendetasunari buruzko datuak– adierazitako dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egin ezean.

Era berean, eskatzaileak laguntza kobratzeko adierazi duen banku-kontua ez bada honako hauetakoren bat: Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, BBVA, Banco Santander, Sabadell, Caja Rural de Navarra edo Abanca; adierazitako banku-titulartasunaren datuak egiazkoak ote diren egiaztatuko da, elkarreragingarritasun-mekanismoen bidez. Elkarreragingarritasun hori ezin da aplikatu eskatzailea pasaportearekin identifikatu bada.

Agindu hau indarrean jartzen den unean, aipatutako erakundeek hitzarmen bat sinatu dute Eusko Jaurlaritzarekin, beren bezeroei banku-datuak baliozkotzeko aukera eskaintzeko. Horrela bada, etorkizunean beste finantza-erakunde batzuk hitzarmen horri atxikitzen bazaizkio, laguntzen informazio-fitxan zehaztuko dira.

Aurka egiten bada edo, kontsulta egin ostean, dokumentazioa lortu ezin bada, arrazoia edozein dela ere, eskatzaileak berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

4.– Aurkezten diren atzerriko dokumentuak, hala badagokio, modu ofizialean euskarara edo gaztelaniara itzulita egon behar dute. Halaber, atzerriko dokumentu publikoek behar bezala legeztatuta egon beharko dute.

Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea dutenen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 6ko 2016/1191 Erregelamendua (EB) aplikatuko da, zeinaren bidez errazten baita herritarren zirkulazio librea, dokumentu publiko jakin batzuk Europar Batasunean aurkezteko eskakizunak erraztuta, eta zeinaren bidez aldatzen baita 1024/2012 Erregelamendua (EB).

4. artikulua.– Laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak.

1.– Jarraian adierazten diren laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak onesten dira, eta agindu honi eransten zaizkio:

– 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako laguntza-eskabidea, eta aparteko laguntzaren eskabidea erditze anizkoitzagatik, adopzio nazional anizkoitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik (0-3 kodearekin identifikatzen da).

– 3 eta 7 urte bitarteko hirugarren seme-alaba eta hurrengoak dituzten familientzako laguntza-eskabidea (3-7 kodearekin identifikatzen da).

– Seme-alabaren desgaitasunagatiko edo mendetasunagatik laguntza bikoizteko eskabidea (DS kodearekin identifikatzen da).

2.– Inprimaki normalizatuak eta horiek nola bete jakiteko jarraibideak «https://euskadi.eus» webgunean daude eskuragarri. Zehazki:

0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako laguntzen eskabideak, eta aparteko laguntzaren eskabideak erditze anizkoitzagatik, adopzio nazional anizkoitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik, hemen: https://www.euskadi.eus/servicios/0045802

3 eta 7 urte bitarteko hirugarren seme-alaba eta hurrengoak dituzten familientzako laguntza-eskabideak, hemen: https://www.euskadi.eus/servicios/0045802

Seme-alabaren desgaitasunagatiko edo mendetasunagatiko laguntza bikoizteko eskabideak, hemen: https://www.euskadi.eus/servicios/0045802

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira honako hauek: Agindua, 2023ko otsailaren 22koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak, eta, orokorrean, agindu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo baxuagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

0-3

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Familia eta Haurren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Familias e Infancia*

Inprimatu

# 0-3 URTE ARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

**Zalantzarik baduzu, irakurri eskabidea betetzeko jarraibideak (11. orria)**

## 1. Eskabide-mota

[X] 0-3 urte
[ ] Erditze anizkoitza edo adopzio nazional anizkoitza
[ ] Nazioarteko adopzioa

**Nork aurkezten du eskabidea?**

○ Interesduna ○ Ordezkaria ** Ikus jarraibideak 11. orrian*

## 2. Eskatzailearen datuak

**Abizenek eta izenek zehazki bat etorri beharko dute NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.**

**NAN/AIZ/Pasaportea:** ____________ **AIT:** ____________
AIZ badaukazu eta, gainera, AIT agiria badaukazu (atzerritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

**1. abizena:** ____________ **2. abizena:** ____________

**Izena:** ____________ **Jaiotze-data:** ____________

**Sexua:** [ ] emakumea [ ] gizona **Jaiotza-herrialdea:** [ ] Espainia [ ] Atzerria

**Egoera zibila:** [ ] ezkongabea [ ] ezkondua [ ] izatezko bikotea [ ] banandua-dibortziatua [ ] alarguna

[ ] **% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna** [ ] **Genero-indarkeriaren biktima** (ikus 13. orriko 5. puntua)

**Kalea:** ____________ **Zk.:** ____ **Solairua:** ____ **Letra:** ____ **PK:** ____________

**Herria:** ____________ **Udalerria:** ____________ **Lurralde historikoa:** ____________

**Eskatzailearen erroldatzearen antzinatasuna. Adierazi BAI ala EZ aukera hauetan:**

Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta nago eta egon naiz etenik gabe azken 12 hilabeteetan:
[ ] Bai [ ] Ez

Erroldatze hori bete ezean, azken 10 urteetan 5 urtez jarraian erroldatuta nagoela egiaztatzen dut: [ ] Bai [ ] Ez

Adierazitako erroldatze-aldietan hainbat udalerritan erroldatuta egonez gero, adieraz itzazu:
____________

## 3. Bankuko datuak (ikus 11. orriko 3. puntua)

**IBAN** [ ][ ][ ][ ] [ ][ ][ ][ ] [ ][ ][ ][ ] [ ][ ][ ][ ] [ ][ ][ ][ ] [ ][ ][ ][ ]

Titularra: ____________

- Bete atal hau zure bankuko datuekin, beharrezkoak baitira laguntza ordaindu ahal izateko.
- Zu (hau da, laguntza eskatzen duen pertsona) izan behar zara bankuko kontuaren titularra.
- Zure banku-erakundea **ez** bada KUTXABANK, BANCO SANTANDER, LABORAL KUTXA, CAIXABANK, BBVA, SABADELL, CAJA RURAL DE NAVARRA edo ABANCA, aurkeztu:
  - ✓ Kontuaren titulartasunaren agiria.
- **Pasaportearekin** identifikatuz gero, zure banku-erakundea edozein dela ere, aurkeztu:
  - ✓ Kontuaren titulartasunaren agiria eta pasaportearen fotokopia.

## 4. Jakinarazpenetarako datuak

Komunikazio-hizkuntza: ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jakinarazpen-kanala:

☐ **Telematikoa** Jakinarazpen-kanal telematikoa aukeratzen baduzu, **ezinbestekoa da identifikazio-ziurtagiri elektronikoa edukitzea.**
Jakinarazpen administratibo bat badaukazu, mezu elektroniko bat edo SMS bat jasoko duzu. Bertan adieraziko zaizu, www.euskadi.eus/familia web-orrira jotzeko, elektronikoki identifikatzeko eta “Nire karpeta” atalean sartzeko, ebazpena osorik ikusi ahal izateko.

**Telefono mug.:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**Helbide Elektronikoa:** ____________________

☐ **Posta arrunta** Kalea: ____________________ Zk.: ______ Solairua: ______ Letra: ______

PK: ________ Herria: ____________ Udalerria: ____________

Lurralde historikoa: ____________ Telefonoa: ____________

Helbide Elektronikoa: ____________________

## 5. Laguntza eskatu ez duen gurasoaren datuak (ama/aita, harreragilea, tutorea) Pertsona hori badago bete behar da soilik

**Abizenek eta izenek zehazki bat etorri beharko dute NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.**

**NAN/AIZ/Pasaportea:** ____________ **AIT:** ____________

**1. abizena:** ____________ **2. abizena:** ____________

**Izena:** ____________ **Jaiotze-data:** ____________

**Sexua:** ☐ emakumea ☐ gizona **Herrialdea:** ☐ Espainia ☐ Atzerria

## 6. Laguntza eragin duen seme-alabaren datuak (erditze anizkoitzaren edo adopzio anizkoitzaren kasuan, erditze berean jaiotako edo aldi berean adoptatutako seme-alaba guztien datuekin bete)

| JAIOTZE-DATA | ADOPZIO, TUTORETZA EDO HARRERAREN DATA (Adingabeak soilik) | SEXUA E | SEXUA G | ABIZENAK ETA IZENA | DESGAITASUNA ≥ % 33 (Ikus 11. orriko 6. puntua) | BERRIKUSPEN-DATA | MENDETASUNA (Ikus 11. orriko 6. puntua) | BERRIKUSPEN-DATA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |

**Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera):**

Erantzun galdera hauei:

1. **Laguntza sortzen duen seme-alaba zure egungo bikotekidearena da?**
   Bai ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)
   Ez ☐ (hurrengo galderarekin jarraitu)

2. **Zaintza eta jagoletza esleitzen dituen ebazpen judizialik dago?**
   Bai ☐ (ebazpena aurkeztu eta jarraitu hurrengo galderarekin)
   Ez ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)

3. **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitu da?**
   Bai ☐ (bete III. eranskina eta jarraitu hurrengo galderarekin)
   Ez ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)

4. **Zure seme-alaba laguntza eskatu ez duen beste gurasoarekin erroldatuta dago?**
   Bai ☐ (bete IV. eranskina)
   Ez ☐

2 / 14

## 7. Dokumentazioa kontsultatzea/egiaztatzea

**Zein datu kontsultatuko dira?**
Laguntzak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko ditu honako datuak (39/2015 Legearen 28. artikulua):

1. Eskatzailearen eta laguntza eskatu ez duen beste gurasoaren identifikazioa
2. Errolda indibiduala
3. Errolda historikoa
4. Bizikidetza-unitatearen errolda
5. Laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasuna
6. Laguntza eragin duen seme-alabaren jaiotza
7. Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna

☐ Baimena ematen dut, beharrezkoa izanez gero, helbidean bizi diren pertsona guztien EINren errolda-datuak kontsultatzeko

Gainera, erditze anizkoitzaren, adopzio nazional anizkoitzaren eta nazioarteko adopzioaren kasuan, honako hauek kontsultatuko dira:

8. Eskatzailearen egungo ezkontide edo bikotekidearen identifikazioa
9. Familia-unitateko gainerako seme-alaben jaiotza
10. Familia-unitateko pertsona guztien mendetasuna (seme-alaben mendetasunen kasuan, ziurtagiria aurkeztu beharko da)
11. Familia-unitateko pertsona guztien desgaitasuna
12. Eskatzailearen eta haren ezkontide edo bikotekidearen EAEko foru-ogasunetako zerga-datuak
    Zerga-datuak ez kontsultatzea nahi baduzu, adierazi aukera hauetako bat:

☐ **Gutxieneko laguntza hartuko dut**, eta, beraz, ez dut nire datuak kontsultatzea nahi
☐ Aurka egiten dut eta dagokion dokumentazioa aurkezten dut (14. artikulua)

- Datuak kontsultatu egingo dira, zuk (eskatzailea) aurka egin ezean (10. atala. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/064300-capa2-eu.shtml)
- Aurka eginez gero edo, kontsulta egin ostean, dokumentazioa lortu ezin bada, arrazoia zeinahi dela ere, eskatzaileak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori (ikus 14. orria).

## 8. Adierazpena / Baimenak

ERANTZUKIZUNA NEURE GAIN HARTUTA, HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

☐ Laguntza hauek kudeatzen dituen zuzendaritzari berehala jakinaraziko diot eskabidean adierazitako datuetan egondako edozein aldaketa eta dirulaguntzaren xedea edo laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak nabarmen aldatu ditzakeen edozein gertaera.

☐ Eskabide honetan nahiz aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak dira. Era berean, hala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu dezakedala adierazten dut.

☐ Laguntza hauen onuradun izateko baldintzak betetzen ditut, eta laguntza aprobetxatu bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen dut.

☐ Beste guraso bat badago edo bikotekide edo ezkontiderik edukiz gero, pertsona hori jakinaren gainean dago eta baimena ematen du eskabide honetan adierazitako datuak kontsultatzeko (7. puntua. Dokumentazioa kontsultatzea/egiaztatzea).

☐ Nire helbidean bizi diren adinez nagusiak jakinaren gainean daude, eta eskabide honetan adierazitako errolda-datuak kontsultatzeko baimena ematen dute.

☐ Ez didate zehapenik jarri, zigor- nahiz administrazio-arloan, eta, halaber, ez nago laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea legez eragozten didan beste ezein egoeratan.

☐ Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako laguntza edo dirulaguntzekin lotutako itzultze- edo zehapen-prozedura batean.

**Ohar garrantzitsua:**

Eskabidean emandako informazioan edozein aldaketa gertatuz gero, jakinarazi egin behar duzu:

- familia-unitateko edozein kideren errolda-helbidearen gaineko aldaketak
- seme-alaben zaintza eta jagoletzaren gaineko aldaketak
- banku-kontuaren aldaketa edo indargabetzea, eta abar

Aldaketa horiek jakinarazteko, erabili ***Aldaketen jakinarazpena*** izeneko eredua, www.euskadi.eus/familia web-orrian.

## 9. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak “Familientzako laguntzak eta dirulaguntzak” izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- Arduraduna: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritza
- Helburua: Laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko laguntzen eta seme-alabak dituzten familientzako laguntzen kudeaketa
- Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko
- Hartzaileak: Ez da datuen komunikaziorik aurreikusten
- Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere
- Informazio gehigarria: Gure web-orrialdean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza
https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/064300-capa2-eu.shtml

Araudia:
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra
eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa
www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673

____________________ , ________ (e)ko ________ aren ____ (a).

**ESKATZAILEAREN SINADURA**

4 / 14

## I. eranskina: Erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa

Datu hauek familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko erabiliko dira

### Familia-unitatearen parte diren gainerako seme-alabei buruzko datuak

| JAIOTZE-DATA | ADOPZIO, TUTORETZA EDO HARRERAREN DATA (Adingabeak soilik) | SEXUA | | ABIZENAK ETA IZENA | DESGAITASUNA ≥ % 33 (Ikus 11. orriko 6. puntua) | BERRIKUSPEN-DATA | MENDETASUNA (Ikus 11. orriko 6. atala) | BERRIKUSPEN-DATA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | E | G | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |
| | | ☐ | ☐ | | ☐ | | ☐ | |
| Jaiotzaren lurralde historikoa eta udalerria (jaiotza-agirian adierazitakoaren arabera): | | | | | | | | |

Erantzun galdera hauei:

1. **Familia-unitatearen parte diren gainerako seme-alabak zure egungo bikotekidearenak dira?**
   Bai ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)
   Ez ☐ (hurrengo galderarekin jarraitu)

2. **Zaintza eta jagoletza esleitzen dituen ebazpen judizialik dago?**
   Bai ☐ (ebazpena aurkeztu eta jarraitu hurrengo galderarekin)
   Seme-alabak guraso desberdinenak badira, seme-alaba bakoitzaren zaintza eta jagoletza esleitzen dituen ebazpena aurkeztu.
   Ez ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)

3. **Zaintza eta jagoletza partekatua dago?**
   Bai ☐ (bete II. eranskina eta jarraitu hurrengo galderarekin)
   Ez ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)

5 / 14

**4. Zure seme-alaba/k laguntza eskatu ez duen beste gurasoarekin erroldatuta dago/daude?**

Bai ☐ (bete III. eranskina)
Ez ☐

## Egungo ezkontide edo bikotekidearen datuak

**Abizenek eta izenek zehazki bat etorri beharko dute NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.**

**NAN/AIZ/Pasaportea:** ______ **AIT:** ______

**1. abizena:** ______ **2. abizena:** ______

**Izena:** ______ **Jaiotze-data:** ______

**Sexua:** ☐ emakumea ☐ gizona **Herrialdea:** ☐ Espainia ☐ Atzerria

☐ **% 33ko edo hortik gorako desgaitasuna edo mendetasuna**

## II. eranskina: Ordezkaritza-baimena

### Ordezkaritza baimentzen duen eskatzailearen datuak:

Izena: ______________________ NAN/AIZ/Pasaportea: ______________________

Abizenak: ______________________

### Ordezkaritza onartzen duen ordezkariaren datuak - pertsona fisikoa edo erakundea:

Izena: ______________________ NAN/AIZ/Pasaportea/IFZ: ______________________

Abizenak: ______________________

### Ordezkaritza onartzea:

Atal hau sinatzean, ordezkariak ordezkaritza onartzen du, eta eskatzaileak baimendu egiten du.
**Baimen horrek eskabide honetarako soilik balioko du.**

### Aplikatu beharreko arauak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikulua.

______________________ , ______ (e)ko ______ aren ______ (a).

Eskatzailearen sinadura Ordezkariaren sinadura

## III. eranskina: Zaintza eta jagoletza partekatuaren kasuan laguntza nork kobratuko duen

**Baimen horrek eskabide honetarako soilik balioko du.**

Nik (beste gurasoa), ______________________ (izen-abizenak),

(NAN/AIZ/Pasaportea: ______________ ), baimena ematen dut

______________________ (eskatzailearen izen-abizenak),

(NAN/AIZ/Pasaportea: ______________ ) izan dadin gure seme-alab(ar)en jaiotzaren ziozko laguntza jasotzen duena.

Eskatzailearen sinadura Beste gurasoaren sinadura

**IV. eranskina: Jagoletza eta zaintza partekatua**
**Beste gurasoaren baimena**
**Eskatzailearekin erroldatuta ez dagoen seme-alabaren familia-erroldaren kontsulta**

**Baimen horrek eskabide honetarako soilik balioko du.**

**Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judizialik dago?**

Bai ☐ (jarraitu hurrengo galderarekin)
Ez ☐ (ez duzu gainerako galderekin jarraitu behar)

**Zure seme-alaba laguntza eskatu ez duen beste gurasoarekin erroldatuta dago?**

Bai ☐ (bete eranskin hau)
Ez ☐ (ez bete eranskin hau)

Beste gurasoak hurrengo atala bete behar du errolda kontsultatu ahal izateko:

**Nik,** ________________________________________ (izena eta bi abizenak)

(NAN/AIZ/pasaportea: ____________________ ), **baimena ematen diot** laguntza kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzako

Zuzendaritzari nire seme-alaben familia-erroldaren datuak ofizioz kontsultatzeko:

________________________________________ (izena eta bi abizenak)

________________________________________ (izena eta bi abizenak)

Helbide honetan:

Kalea ______________________________ ZK. ______ Solairua: ______ Letra: ______

PK: __________ Udalerria: ____________________ Lurralde historikoa: ____________________

Beste gurasoaren sinadura

## Eskabidea aurkezteko lekua

Eskabidea eta beharrezko agiriak aurkezteko, bi aukera dituzu.

**Posta elektronikoa/telematikoa**

Eskabidea elektronikoki/telematikoki aurkez dezakezu. Horretarako, sartu web-helbide honetan:
https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/seme-alabak-dituzten-familientzako-hileko-laguntzak/web01-tramite/eu/

Kasu honetan, laguntza bitarteko honen bidez eskatu ahal izateko identifikazio-modu bat eduki behar duzu. Identifikazio elektronikorako bitartekoei buruzko informazio gehiago: https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/.

**Aurrez aurre**

Bide hori hautatuz gero, hainbat aukera dituzu zure eskabidea aurkezteko:

- ZUZENEAN Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan.
  ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoen helbideak:
  - Ramiro de Maeztu 10, beheko solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz
  - Kale Nagusia, 85 - 48011 Bilbo
  - Andia, 13 - 20004 Donostia

  Aldez aurreko hitzordua eskatzeko (online: https://www.euskadi.eus/web01-ejqmatic/eu/zuzeneanwebbooking/#/?lang=eu_es, tel.: - 945 01 90 00)

  Laguntzei buruzko informazioa telefonoz eskuratzeko:
  ZUZENEAN ( 012 - 945 01 80 00)

- Administrazio edo erakunde hartzailearen erregistroan, nahiz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1. artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan.
  Honako hauek, besteak beste:
  - Udaletxeak – Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
  - Autonomia-erkidegoen administrazioak.
  - Estatuko Administrazio Orokorra.
  - Sektore publiko instituzionala.

  Honako jarraibide hauek bete behar dituzu:
  - Eskabidea (beteta) eta beharrezko agiriak eman behar dituzu.
  - Honako kode honetara zuzentzeko adierazi behar duzu:
    Erregistro-erakundea: **O 00016303** (lehen indizea O letra larria da)
    Izapidetze Unitatea: **A 16034215**

- Posta-bulegoetan:
  - Honako ORVE kode honetara zuzentzeko adierazi behar duzu:
    **A16034215 – Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila**
    **0045802 erreferentzia**
  - Eskabidea (beteta) eta beharrezko agiriak eraman behar dituzu.
  - Eskabidea eta beharrezko agiriak digitalizatzeko eskatu behar duzu.
  - Correoseko bulegoko langileek ziurtagiri ofizial bat entregatuko dizute, egindako erregistroaren justifikazio moduan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusten diren gainerako lekuetan.

## Eskabidea aurkezteko epea

Eskabide hau **3 hilabeteko epean** aurkeztu behar duzu laguntza osoa kobratu ahal izateko. Epe honen hasiera aldatu egiten da, kasuan kasu:

- **Jaiotza**: jaio eta hurrengo egunean hasten da epea.
- **Adopzioa edo tutoretza:** adopzioaren (nazionala edo nazioartekoa) edo tutoretzaren eraketa dagokion Erregistro Zibilaren bulegoan inskribatu eta hurrengo egunean hasten da epea (kontsuletxeetakoak barne).

- **Adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioa**: eraketaren administrazio-ebazpena eskatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunean hasten da epea.

**Eskabide hau 3 hilabeteko epean aurkezten ez bada**, ezingo da laguntza osoa kobratu. Kasu horretan, eskabidea aurkeztu den hiletik aurrera kobratuko da laguntza.

Bi salbuespen daude 3 hilabeteko epe hori handitzeko:

- **Salbuespen** moduan, 2023an, 2023ko urtarrilaren 1aren eta uztailaren 31ren artean gertatutako egoera diruz lagungarrietarako, laguntza-eskabidea **2023ko urriaren 31ra arte** eskatu ahalko duzu.

  Hartara, laguntza jasotzeko eskubidea aitortuko zaizu 2023ko urtarrilaren 1etik, zehazki jaiotza, adopzioa, tutoretza edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioa gertatu den unetik edo dagokion unetik.

  Eskabidea epe hori amaitu ondoren aurkezten baduzu, hau da, 2023ko azaroaren 1etik aurrera, eskabidea aurkeztu duzun hilabetetik aurrera kobratuko duzu laguntza.

- Eskubidea sortzen duen seme-alaba ospitaleratuta egon bada 10 egunez edo gehiagoz eskabidea aurkezteko hiru hilabeteko epe horren barruan, ospitaleratuta egon den egun-kopuruaren arabera luzatuko da epea. Egoera hori ospitaleko txostenaren bidez egiaztatu beharko duzu.

Eskabidea aurkeztu ahalko duzu, honako mugaegun hauekin:

- **Jaiotza**: zure seme-alabak 3 urte bete aurreko hilabeteko azken eguna.
- **Adopzioa edo tutoretza**: inskripziotik 3 urte bete aurreko hilabeteko azken eguna.
- **Adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioa**: administrazio-ebazpenetik 3 urte bete aurreko hilabeteko azken eguna.

**1. adibidea**: Zure alaba 2023ko azaroaren 25ean jaio da

- Eskabidea 2023ko azaroaren 26tik 2024ko otsailaren 25era aurkezten baduzu, jaiotzaren hilabetetik aurrera kobratuko duzu laguntza.
- Eskabidea 2024ko otsailaren 26tik alabak 3 urte bete aurreko hilera bitartean aurkezten baduzu, eskabidea aurkeztu duzun hilabetetik aurrera kobratuko duzu laguntza.

**2. adibidea:** Zure semea 2021eko otsailaren 18an jaio zen.

- Eskabidea 2023ko martxoaren 1etik urriaren 31ra aurkezten baduzu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera kobratuko duzu laguntza.
- Eskabidea 2023ko azaroaren 1etik haurrak 3 urte bete aurreko hilera bitartean aurkezten baduzu, eskabidearen hilabetetik aurrera kobratuko duzu laguntza.

## Eskabidea betetzeko jarraibideak

Eskabide bat aurkeztu behar duzu 0-3 urteko seme-alaba bakoitzeko, baina erditze anizkoitzen edo adopzio anizkoitzen kasuan (nazionalak nahiz nazioartekoak), eskabide bakarra aurkeztu behar duzu aldi berean erditu edo adoptatutako seme-alaba guztien datuekin.

### 1. Eskabide-mota

Erditze anizkoitzaren, adopzio nazional anizkoitzaren edo nazioarteko adopzioaren kasuan, dagokion laukia hautatu beharko da, eta I. eranskina bete (5. orrialdea).

Nork aurkezten du eskabidea?

- **Interesduna**: Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea.
  Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, seme-alabaren zaintza eta jagoletza esleituta dituen familia-unitateko kidea bada.
- **Ordezkaria:** baldin eta interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada.
  Kasu honetan, joan 7. orrira eta bete II. eranskina - “Ordezkaritza-baimena”.

### 2. Eskatzailearen datuak

**NAN/AIZ/Pasaportea:** Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko du. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzerritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportea adierazi beharko da.
**AIT:** AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzerritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

### 3. Bankuko datuak

- Adierazitako kontu-zenbakia erabiliko da zuk otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan araututako seme-alaben laguntzekin lotuta dituzun espediente guztietarako. Edozein aldaketa eginez gero, espediente guztietan izango du eragina.
- **Zer da kontu-titulartasunaren agiria?** Erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta nortasun-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaportea) jasotzen dituen banku-agiria.

### 4. Jakinarazpenetarako datuak

Identifikazio-ziurtagiri elektroniko bat ez baduzu (adibidez, BakQ, Izenpe, NAN elektronikoa...), posta arrunta aukeratu dezakezu bidaltzen dizkizugun jakinarazpenak eskuratzeko komunikazio-bitarteko moduan.
**Oharra**: Bitarteko elektronikoaren kasuan, kontuan hartu 10 eguneko epea dagoela jakinarazpenera sartzeko. Epe hori igarotakoan ez bazara “Nire karpetara” sartu eta jakinarazpen hori zabaldu ez baduzu, baztertu egin duzula ulertuko dugu. Kasu horretan, jakinarazpena egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.

### 5. Laguntza eskatu ez duen gurasoaren datuak

Familia-unitatearen parte den beste pertsona: ama/aita, harreragilea eta tutorea. Beste pertsona hori badago bete behar da.

### 6. Laguntza eragin duen seme-alabaren datuak

Seme-alabaren desgaitasunaren edo mendetasunaren kasuan, markatu dagokion laukitxoa eta adierazi ziurtagiriaren berrikuspen-data.
**Oharra**: 0-3 urtekoen eskabide hau bete eta seme-alabaren desgaitasuna edo mendetasuna adierazita, desgaitasunaren edo mendetasunaren ziozko laguntza eskatzen da; ez da beharrezkoa desgaitasunaren/mendetasunaren berariazko eskabidea (DS) aurkeztea.

### 7. Dokumentazioa kontsultatzea/egiaztatzea

3. **Eskatzailearen eta haren ezkontide edo bikotekidearen EAEko foru-ogasunetako zerga-datuak kontsultatzea:**
   (Kontsulta egingo da, soilik erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa dela eta laguntza eskatzen bada)

   Kontuan hartuko diren errenta-datuak duela bi urteko diru-sarrerei buruzkoak dira, hau da, eskabide honen dataren aurreko urtean aurkeztutako errenta-aitorpenekoak. Adibidez, eskabide hau 2023an aurkezten baduzu, errenta-datuak 2021eko ekitaldikoak izango dira (hau da, 2022an aurkeztu zenuen errenta-aitorpenekoak.

   - Honako kasu hauetan **ezin** izango da diru-sarrera fiskalei buruzko informaziorik lortu:
     - Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan **Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zergapetu baduzu** (errenta-aitorpena aurkeztuta).
     - Identifikatzeko **pasaportea** erabili bada.
     - Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZa izatetik NANa izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).

   Horregatik, errenta-aitorpena edo PFEZi egotzi dakizkiokeen diru-sarreren ziurtagiria **aurkeztu beharko duzu**, administrazio eskudunak igorria eskabidearen dataren aurreko urtean, eskabidearen data baino bi urte lehenagoko ekitaldia hizpide.

### III. eranskina: Laguntza nork kobratuko duen

Kasu honetan beteko da:

- **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago**: Baimena emateko, eskatzailea izan dadin seme-alaben ziozko laguntza jasotzen duena.

### IV. eranskina: Zaintza eta jagoletza partekatuko seme-alaben familia-errolda kontsultatzeko baimena

Kasu honetan beteko da:

- **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago**: Laguntza eragin duen seme-alaba ez dago eskatzailearekin erroldatuta. Baimen horrekin, egiaztatuko da seme-alaba beste gurasoarekin (ama/aita, tutorea, harreragilea) erroldatuta dagoela.

## 0-3 eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

### Beti aurkeztu behar den dokumentazioa

Zure banku-erakundea honako hauetakoren bat **EZ** bada: Kutxabank, Banco Santander, Laboral Kutxa, CaixaBank, BBVA, Sabadell, Caja Rural de Navarra edo Abanca

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Banku-titulartasuna | • Banku-titulartasunaren agiria, hauek jasotzen dituena: erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta NAN/AIZ/pasaportea | Banku-erakundea<br>Banku-erakundearen web-orria |

Gainera, **kasu hauetan** aurkeztu beharko du:

### 1. Erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Adopzioko, tutoretzako edo adopzio aurreko elkarbizitzako jagoletzako egoera | • Erregistro Zibileko inskripzioaren ziurtagiria (adopzio edo tutoretza kasuetan)<br>• Administrazio-ebazpena (adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintza-delegazioaren kasuan) | Administrazio eskuduna |
| Familia-errenta estandarizatua, kasu hauetan:<br>• Errentaren aitorpena EAEtik kanpo aurkeztu bazuen edo aurkeztu beharko bazuen<br>• Pasaportearekin identifikatuz gero | • Aurreko urteko errenta-aitorpenaren kopia edo, horrelakorik aurkeztu ez bada,<br>• PFEZi egotz dakizkiokeen diru-sarreren ziurtagiria, duela bi urtekoa | Foru-aldundiak, zerga-agentzia eta bestelako agintaritza eskudunak |

### 2. Banantzea, dibortzioa edo ezkontza-deuseztasuna

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Banantzea, dibortzioa edo ezkontza-deuseztasuna | • Zaintza eta jagoletza esleitzen duen ebazpen judizialaren fotokopia | Epaitegiak |

### 3. Jagoletza eta zaintza partekatua

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Zaintza eta jagoletza partekatua | • Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judizialaren fotokopia<br>**edo**<br>• Guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena eta sententzia berreslea | Epaitegiak |
| Laguntza kobratzeko baimena | • Zaintza eta jagoletza partekatuaren kasuan, laguntza nork kobratuko duen zehazteko adostasuna | III. eranskina |
| Seme-alaben errolda (eskatzailearekin erroldatuta ez badaude) | • Zaintza eta jagoletza partekatuko seme-alaben familia-errolda kontsultatzeko baimena<br>**edo**<br>• Seme-alaben familia-erroldaren ziurtagiria (eman berria - onartutako gehieneko antzinatasuna 3 hilabete) | IV. eranskina<br><br>Udaletxea |

### 4. Ordezkari bidez jardunez gero

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Ordezkaritza | • Ordezkaritza-baimena | II. eranskina |

### 5. Genero-indarkeriaren biktima

Gogoan izan **EZ** duzula aurkeztu behar seme-alaben zaintzari eta jagoletzari buruzko dokumentaziorik.

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak (Honako dokumentu hauetakoren bat) | Non lortu |
|---|---|---|
| Genero-indarkeriaren biktima izatea | • Genero-indarkeriaren biktimaren aldeko babes-agindua<br>• Genero-indarkeriako gertakariengatiko kondena-epaia<br>• Bi horiek falta badira, Fiskaltzaren txostena, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela adierazten duena | Epaitegiak |
| | • Genero-indarkeria egon delako administrazio-egiaztagiria | Oinarrizko gizarte-zerbitzuak |

### 6. Pasaportearekin identifikatuz gero

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Banku-kontuaren titulartasuna | • Banku-titulartasunaren agiria, hauek jasotzen dituena: erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta NAN/AIZ/pasaportea | Banku-erakundea<br>Banku-erakundearen web-orria |
| Nortasuna | • Pasaportearen fotokopia | |

### 7. Ezkontza-deuseztasunagatik, banantzeagatik edo dibortzioagatik gerora sortutako guraso bakarreko familiak

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Guraso bakarra izatea | • Ebazpen judiziala, seme-alaben zaintza eta jagoletza eskatzaileari esleitzen diona eta mantenu-pentsioa ez ordaintzea deklaratzen duena | Epaitegiak |

### 8. Seme-alabaren mendetasun-egoera

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Mendetasun-egoera | • Mendetasun-egoera egiaztatzen duen administrazio-ebazpena | Euskadi: Foru-aldundia<br><br>Estatua: Organo eskuduna |

**Laguntzak kudeatzen dituen Zuzendaritzari baimena ematen EZ bazaio administrazio eskudunari informazioa eskatzeko**

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Nortasuna | • Eskatzailearen eta ezkontidearen edo bikotekidearen NANaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia (indarrean egon behar du) | Polizia-etxeak edo enbaxadak |
| Filiazio-harremana | • Familia-liburuaren fotokopia edo<br>• Hitzez hitzeko jaiotza-agiria edo erregistro zibileko ziurtagiria | Erregistro zibila |
| Familia-errolda | • Familia-erroldaren ziurtagiria (eman berria - onartutako gehieneko antzinatasuna, 3 hilabete) | Udaletxeak |
| Errolda historikoa:<br>• Azken urtea<br>**edo**<br>• 5 urte jarraian azken 10 urteetan | • Eskatzailearen errolda-ziurtagiri historikoa (eman berria - onartutako gehieneko antzinatasuna, 3 hilabete) | Udaletxeak |
| Laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasuna edo mendetasuna | • Desgaitasuna edo mendetasuna egiaztatzen duen administrazio-ebazpena | Euskadi: Foru Aldundia<br>Estatua: Organo eskuduna |
| Banku-titulartasuna | • Banku-titulartasunaren agiria, hauek jasotzen dituena: erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta NAN/AIZ/pasaportea | Banku-erakundea<br>Banku-erakundearen web-orria |

Gainera, **kasu hauetan** aurkeztu beharko du:

**1. Erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa**

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Familia-errenta estandarizatua | • Iaz aurkeztutako errenta-aitorpena | Foru-aldundia edo administrazio eskuduna |
| Familia-errenta estandarizatua | • Eskatzailearen eta haren ezkontidearen edo bikotekidearen duela bi urteko errenten eta PFEZri egotz dakizkiokeen etekinen ziurtagiria | Foru-aldundiak, zerga-agentzia eta bestelako agintaritza eskudunak |
| Adopzioko, tutoretzako edo adopzio aurreko elkarbizitzako jagoletzako egoera | • Erregistro zibileko inskripzioaren ziurtagiria (adopzio edo tutoretzaren kasuan)<br>• Administrazio-ebazpena (adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren kasuan) | Administrazio eskuduna |
| Familia-unitateko kideren baten desgaitasuna edo mendetasuna | • Desgaitasuna edo mendetasuna egiaztatzen duen administrazio-ebazpena | Euskadi: Foru Aldundia<br>Estatua: Organo eskuduna |

**2. Familia-liburuan familia-unitatea osatzen duten seme-alaba guztiak agertzen ez badira**

| Egiaztatzeko | Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak | Non lortu |
|---|---|---|
| Filiazio-harremana | • Hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria | Espainia: Erregistro Zibila |
| Filiazio-harremana | • Jaiotza- ziurtagiria eta inprimaki normalizatu eleaniztuna. | Europar Batasuna: Agintari eskuduna |
| Filiazio-harremana | • Jaiotza-ziurtagiria edo antzeko dokumentua (euskarara edo gaztelaniara itzulia eta legeztatua, dagokionaren arabera, Hagako apostillarekin edo Kanpo Arazoetako Ministerioaren bitartez) | Europar Batasunetik kanpo: Agintari eskuduna |

14 / 14

3-7

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Familia eta Haurren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Familias e Infancia*

Inprimatu

# 3 ETA 7 URTE BITARTEKO HIRUGARREN SEME-ALABAK EDO HURRENGOAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

**Hirugarren seme-alabentzako edo hurrengoentzako soilik**
**Zalantzarik baduzu, irakurri eskabidea betetzeko jarraibideak (9. orria)**

**Nork aurkezten du eskabidea?**

◯ Interesduna ◯ Ordezkaria ** Ikus jarraibideak 9. orrian*

## 1. Eskatzailearen datuak

**Abizenek eta izenek zehazki bat etorri beharko dute NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.**

**NAN/AIZ/Pasaportea:** ____________ **AIT** ____________
AIZ badaukazu eta, gainera, AIT agiria badaukazu (atzerritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

**1. abizena** ____________ **2. abizena:** ____________

**Izena:** ____________ **Jaiotze-data:** ____________

**Sexua:** ☐ emakumea ☐ gizona **Jaiotza-herrialdea:** ☐ Espainia ☐ Atzerria

**Egoera zibila:** ☐ ezkongabea ☐ ezkondua ☐ izatezko bikotea ☐ banandua-dibortziatua ☐ alarguna

